

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Landa Garapeneko Departamentuak hitzarmen bat sinatu du Fundagrorekin, nekazaritza sektorea sustatzeko

Gobernuak 264.580 euro jarriko ditu kalitatezko produktuak hedatzeko eta nekazarientzako informazio eta prestakuntza programetarako

Miércoles, 20 de abril de 2011

Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak eta Fundagro fundazioak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute gaur goizean. Hitzarmen horri jarraiki, Nafarroako Gobernuak 264.580 euro jarriko ditu aurten, kalitatezko nekazaritza elikagaiak sustatzeko jardueretarako eta nekazariei gai hauen gaineko informazioa eta prestakuntza emateko: landa eremuaren dibertsifikazioa, eremu ureztagarrien garapena, ingurumen jarduerak eta nekazaritza enpresen zuzendaritza. Zenbateko hori baliatuko dute, baita ere, Nekazaritza Politika Bateratuari buruzko jardunaldiak antolatuz.



Landa Garapeneko Departamentuak eta Fundagrok hitzarmen bat sinatu dute. Ezker eskuin: Jose Maria Echeverria, Sanzberro kontseilaria eta Felix Bariain.

Fundagro fundazioa Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Elkarteak (NNAE) sortu zuen 2002an, landa bizimodua duintzeko, nekazari eta abeltzainen profesionalizazioa sustatuz, eta erakunde publiko eta pribatuekin batera lan egiteko landa biztanleentzako jarduerak sustatzen.

Hitzarmena sinatu dute Jose Maria Echeverriak, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko zuzendari nagusiak, eta Felix Bariainek, Fundagroko eta NNAEko presidentek. Hori, Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariaren, Begoña Sanzberro Iturriaren, aurrean.

Kalitatezko nekazaritza elikagaiak sustatzeari dagokionez, hitzarmenaren arabera sustatuko dituzte, batik bat, Nafarroako nekazaritza arloko produktu ezagunenak, kalitate zigiluak eta jatorrizko deiturak dituztenak; adibidez, Nafarroako zainzuria.

Alde horretatik, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuak eta Fundagrok elkarrekin lan egingo dute Zainzuri Freskoaren Txapelketa antolatuz. Txapelketa horretan, Nafarroako osoko jatetxeek zainzuria ardatz duten jakiak prestatzen dituzte. Halaber, "Nafarroako zapoak" tailerrak antolatzen jarraituko dute, foru erkidegoko leku berezietan. Tailer

horietan hainbat produktu eskaintzen dituzte dastatzeko, esaterako: zainzuri eta ardo nafarrak.

Gaur sinatu duten hitzarmenean honako hauek ere jaso dituzte:

-

Landa mundua dibertsifikatzeko jarduerak, besteak beste: nekazari profesionalak gaitzeko ikastaroak (aitzindari izan diren eta Nafarroara ekar daitezkeen esperientziak aztertuko dituzte), negozio berriak jartzeko inbertsiogileak bilatzea, eta nekazaritza azokak jartzea, nekazari eta abeltzainek beren produktuak saltzeko aukera izan dezaten, freskoak edo landuak.

-

Nafarroako eremu ureztagarriak garatzeko jarduerak: sektorea sentsibilizatzeko, babesteko eta prestatzeko ekintzak.

-

Ingurumenaren gestioari buruzko jardueren programa; ardatzak izango dira ehiza eta nekazaritza jarduerarekiko interakzioak.

-

Nekazaritza enpresen zuzendaritzari buruzko ikastaroa. Aurreikuspenen arabera, 15 lagunek parte hartuko dute eta langile taldeak zuzentzeko eta kontularitza eta marketina egiteko prestatuko dituzte.

- Nekazaritza Politika Bateratuaren 2011ko kanpainaren berritasunak aditzera emateko 20 informazio jardunaldi